

e) Herriko jaien, urteurrenen eta ekitaldien kultura programak gauzatzea.

f) Programatzen den argitalpenen plana kudeatzea.

g) Helburuak behar bezala betetzeko agintzen zaizkion beste guztiak.

Laugarrena.- Aldatzea 65/2012 Foru Dekretuaren bidez onartutako organigrama, Kultura Ekintza Zerbitzua sortuko baita, zeinaren mendea Kultura Azpiegitura Atala egongo den.

Bosgarrena. Onartu eta hurrengo egunetik aurrera egongo da indarrean dekretu hau, ALHAOn noiz argitaratu gorabehera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko martxoaren 25a.- Diputatu nagusia, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.- Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua, ICIAR LAMARAIN CENITAGOYA.

e) Ejecutar los programas culturales con motivo de fiestas patronales, efemérides, eventos, etc.

f) Gestionar el plan de publicaciones programado.

g) Cualesquiera otras que se le encomienden para el adecuado cumplimiento de sus fines.

Cuarto.- Modificar el organigrama aprobado en el Decreto Foral 65/2012, al crearse el Servicio de Acción Cultural, del que dependerá la Sección de Infraestructura Cultural.

Quinto. El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su aprobación, sin perjuicio de su publicación en el BOTHA.

Vitoria-Gasteiz, a 25 de marzo de 2014.- El diputado general, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.- La diputada de Euskera, Cultura y Deporte, ICIAR LAMARAIN CENITAGOYA.

Foru Aginduak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

1697

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 216/2014 FORU AGINDUA, martxoaren 28koa, 720 eredia 2014an aurkezteko epea luzatzen duena.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren otsailaren 17ko 98/2014 Foru Aginduaren bidez, 720 eredia, atzerian diren ondasun eta eskubideei buruzko informazio aitortpenarena, onartu zen, bai eta hura aurkezteko modua eta haren diseinu fisiko eta logikoak ere.

Foru agindu horretan xedatutako informazio betebeharra, zergapekoak 2013an atzerian zituen ondasun eta eskubideei dagokiena, 2014an ezarri da lehenengo aldiz.

Haren xedapen iragankor bakarrean ezarrita dago 2014ko martxoaren 1a eta martxoaren 31 bitartean aurkeztuko dela 2013ko ekitaldiari dagokion 720 eredia, "atzerian diren ondasun eta eskubideei buruzko informazio aitortpenarena".

Informazio betebehari ez betetzeak ondorioak dakartza, bai pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergan bai sozietateen gaineko zergan, izan ere, informazioa ez bada ezarritako epean ematen, jakinarazi ez diren ondasun edo eskubideen edukitza, aitortpena edo eskuraketa justifikatu gabeko irabazitzat joko da. Beraz, horako hori eta eredu horren aurkezpenari eta hura betetzeko moduari buruz jasotako kontsulta kopurua kontuan hartuta, komeni da 720 eredia aurkezteko epea luzatzea, betebeharra ezarri den lehenengo ekitaldian egin behar hori betetzea errazteko eta, ondorioz, iruzurraren aurka borrokatzeko helburua eraginkorragoa izateko.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horren inguruan emandako txostena aztertu da.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra.

2014ko ekitaldiari dagokionez, luzatu egiten da otsailaren 17ko 98/2014 Foru Aginduan jasotako 720 eredia, atzerian diren ondasun eta eskubideei buruzko informazio aitortpenarena, aurkezteko epea, hain zuzen ere, 2014ko apirilaren 30era arte.

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko martxoaren 28a.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, AITOR URIBESALGO LORENZO.- Ogasun zuzendaria, JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO.

Órdenes Forales

DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

1697

ORDEN FORAL 216/2014, del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, de 28 de marzo, de ampliación del plazo de presentación del Modelo 720 durante 2014.

Por Orden Foral 98/2014, del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, de 17 de febrero, se aprobó el Modelo 720, de declaración informativa sobre bienes y derechos situados en el extranjero, así como su forma de presentación y sus diseños físicos y lógicos.

La obligación de información recogida en la citada Orden Foral se implanta por primera vez para 2014, con relación a los bienes y derechos situados en el extranjero de los que sea titular el obligado tributario en el año 2013.

Su Disposición Transitoria Única establece que la presentación de la "Declaración informativa sobre bienes y derechos situados en el extranjero", modelo 720, correspondiente al ejercicio 2013, se realizará entre el 1 de marzo y el 31 de marzo de 2014.

No obstante, atendiendo al efecto que el incumplimiento de esta obligación de información implica tanto en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, como en el Impuesto sobre Sociedades al considerar como ganancia no justificada la tenencia, declaración o adquisición de bienes o derechos respecto de los que no se hubiera cumplido dicha obligación de información en el plazo establecido al efecto, así como el número de consultas recibidas en relación con el cumplimiento y presentación del Modelo de referencia, se estima conveniente ampliar el plazo de presentación del Modelo 720, para facilitar el cumplimiento de dicha obligación en el primer ejercicio de su implantación y que de ello se derive una mayor eficacia en el objetivo de lucha contra el fraude.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Artículo único.

Para el ejercicio 2014, se amplía el plazo de presentación del Modelo 720 relativo a la declaración informativa sobre bienes y derechos situados en el extranjero, a que se refiere la Orden Foral 98/2014, de 17 de febrero, hasta el 30 de abril de 2014.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden Foral entrará en vigor el mismo día de su publicación en el BOTHA.

Vitoria-Gasteiz, a 28 de marzo de 2014.- Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, AITOR URIBESALGO LORENZO.- Director de Hacienda, JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO.